

Aldarrikapen giro politean bukatu da Olatu Talka, Zuloagan egindako festarekin

Gizarte gaiez beteta etorri da aurtengo Olatu Talka, eta bukaera ere **aldarrikapen doinuz** iritsi da. 13:45 aldera egin da eguneko ekimen bereziena: **bortizkeria sexistaren aurkako ekitaldia**. Ekitaldi honetan **Ane Osa** Intxaurren Kultur Etxeko zuzendaria aritu da gidari moduan eta berak azaldu ditu ekimenaren nondik norakoak. Osak azaldu duenez, Olatu Talkak **hiria eraikitzea** du helburu, baina helburua ez da hiria edonola eraikitzea baizik eta **guztionez** hiri atsegina eta egokia eraikitzea eta aldarrikapen horrek leku nabarmena izan du 2018ko Olatu Talkan. Ostiralean Afrika izan zen inaugurazioaren ardatz, ingurumenak ere berebiziko garrantzia izan du: ingurumen aldetik neurriak hartu ditu jaialdiaren antolakuntzak, ibilbide, instalazio artistiko eta bestelako hainbat ekimenek ingurumenaren ezagutza eta defentsa izan dute oinarri... Baina bada Olatu Talkan **beti ardatz** izan den gai bat: **gizon eta emakumeen arteko berdintasuna eta biolentzia sexistaren aurkako jarrera** irmoa. Horregatik, hainbat urtetan egin dira gaiarekin loturiko ekimenak: hiriko puntu kritikoak landu dira, emakumeentzat arriskuak izan daitezkeen puntu horiek ezabatze aldera; hiriko kale izendegiaren inguruan ere egin da lan, emakumeek izendegi horretan merezi duten eta ez duten lekua izan dezaten; eta askotan ere izan dira jaialdian **Harituzeko** kideak, haien ekimenekin bortizkeria sexistaren aurkako kontzientzia josiz.

Harituzeko kideek bultzatuta, **Matzak Indarkeria Sexistaren Aurka** ekimenaren baitan, ehunka lagunek ehundutako ia 5 kilometroko bufandak (Olatu Talka jaialdiaren baitan aurtun **88 metro** ehundu dira) bortizkeria sexistaren ondorioz hildako milaka emakumeak omentzen ditu; bufanda zatitxo bakoitzak hildako emakume bat gogorarazten digu, eta batez ere, sarea osatzeko eta gizarte honek jasaten duen gaitz latz horren aurrean **kontzientzia sortzeko** balio du. Olatu Talkak sare horri jarraituz, eta kontzientziario arloan beste urrats txiki bat eman nahian, bufanda hori ardatz hartutako eta **Elene Carreto** dantzariak **Elorrioko** bere **ikasleekin** sortutako dantza eskaini du. Carretok sortutako dantzak **Olatz Salvador** abeslari donostiarrek egindako **Korapilatzen** abestia du oinarri, eta emanaldia oso hunkigarria izan da. Dantza bukatutakoan dantzariak bufanda zatiak zintzilikatu dituzte oholatza atzealdean, eta bertan geratu dira jaialdia bukatu arte.

Zuloaga plazan goiza **Izarrak Plazara talent show**arekin hasi da. Bertan parte hartzeko hautatutako 12-17 urte arteko gaztetxoek emanaldi polita egin dute eta haien talentua erakutsi dute elkartutako 350 ikusleen aurrean.

Goiz hasi dira ere **Donostia Sketch** marrazketa maratoian izen-emandako **200 lagunak**. Goizean jaso dituzte Talens koadernoak eta Zuloaga Plaza inguruan aritu dira marrazkiak egiten, eta 13:00etan familia argazkia egin dute Urgull magalean. 18:00etarako bukatu dute lana eta haien koadernoak entregatu dituzte.

Goizean hasi dira ere **Gipuzkoako Argazkilari Elkarteak** bertaratutako guztiei argazkiak ateratzen **Estudioa Kalean**.

Kontzertuek leku garrantzitsua izan dute gaur eguneko zehar. **Beira** taldeak giro bikaina jarri du Zuloaga plazan goizean, eta **Bidean** eta **Infame** taldeek Zurriolako Keler gunean. Arratsaldean, berriz, **Gardena** eta **Hostoak** aritu dira Cervanteseko Fnac agertokian. Eguna, **Indixabak** eta **Mushkum** taldeek Zuloaga Plazan eskainitako kontzertuekin amaitu da. **Arratsaldeko** hauetan **euria** izan da protagonista eta jende gutxiago bertaratu da.

Dantza ere izan da jaialdiko azken eguneko. **Showtime** Dantza Elkartearen emanaldiak izan dira lehenengoak, Cervantes Plazan hasitako ibilbidearekin. Zurriola Musika eta Dantza Eskolaren **Dantza Topaketa**, Elene Carreto eta Beñat Urrutiaren **Desafioa 19:55** eta **Nebraskaren** emanaldia ere izan dira.

Itsasoarekin lotutako bi ekimen izan dira: **Itsas Zaborra Out** eta **itsas ibilbide didaktikoak**. Lehenengoan 400 parte-hartzaile eta ikusle izan dira, eta bigarrenean, 200 laguneko parte hartu dute. **Roller Derby** partida ikusteko aukera ere izan da Boulevardean, larunbatean ez bezala gaur lurra lehor baitzegoen eta ez zen bertan behera utzi behar izan, bezperan Intxaurren ikastaroarekin gertatu bezala.

Añorgako Harrobiaren Plaza

Olatu Talkako azken egunean, Zuloagaz gain, beste gune garrantzitsua Añorga izan da, izan ere, **Añorgako Kultur eta Kirol Elkartearen** ekimenez, izena eman zaio Añorgako plazari. Añorgatarrek aste osoa eman dute plaza margotzen, prestatzen eta abar, eta gaur izena ere jarri diote. Añorgan parte hartze prozesu bat egin dute **plazari izena emateko**, eta aurrerantzean izena izango du: **Harrobiaren plaza**. Añorga Kultur eta Kirol Elkarteko kideek harrobiek eta harrobi hitzaren inguruan irakurketa egin ondoren, izena proposatu zuen umeak plazaren izenarekin jarritako plaka erakutsi du.

Arratsaldean Añorgan jarraipena izan du festak **Orixe Bertsolaritza Sariaren Finalarekin**.

Eguraldiaren aurre eginez, balantze baikorra

Oraindik jaialdiaren balantzea egiteko goiz den arren, lehen datu batzuk azpimarratzea garrantzitsua da. Izan ere, eguraldiari aurre eginez, ekitaldi ia guztiak egin ahal izan dira eta jendearen erantzuna primerakoa izan da. Guztira, Olatu Talkako ekitaldietan **30.000 lagun inguru** izan direla esan dezakegu.

Ostiralean, 6.000 lagun baino gehiago izan ziren 15 ekitaldi baino gehiagotan. Ostiralean jende gehien **Kontxa Gaumarketek** elkartu zuen, **2.500** lagun baino gehiago bertaratu baitziren. **Inaugurazio ekitaldira 500** bat ikusle hurbildu ziren eta Zuloagako, Cervanteseko eta Zurriolako **kontzertuetara** ere jende dezente gerturatu zen.

Larunbatean, goiza euri jasa handiekin hasi zen eta ondorioz, ekitaldi batzuk bertan behera geratu ziren, baina **% 95 egin ziren**. Arrakastatsuenen artean berriro ere **Kontxa Gaumarket** aipatu behar, 4.000 lagun inguru bertaratu baitziren, ostiralean baino jende gehiago. Horrez gain, **Basoka: Zorionak Dylan!**, Antiguako **Merkatuaren Eguna**, **Boulevardean** egun osoan eskainitako emanaldiak eta **Munduko Jolasen Topaketa** aipatu behar. Guztira **20.000 lagun** inguru ibili ziren 100dik gora ekitaldietan.

Igandeko balantzea ezin da oraindik egin, baina goizean Zuloaga Plazan 2.000 lagun inguru izan dira.